

San Juan jaien ostean, jaietan da Kaletxiki

San Pedro egunean bertso saioa antolatu zuten Berrozpeko kaperan. Ostiraletik igandera hitzordu ugari iragarri dituzte / 16

Ekaitzaren ostean, San Juan bezperako ospakizunari ekin zioten Urnietan, Sorginen eskutik / 4

Euriak agerpena egin badu ere, San Juan jaiak ia-ia bere osotasunean ospatu dira Andoainan / Gehigarria



Twitterren arrakasta itzela lortu du klasean egindako lanak

Egape Ikastolako Ane de Sosa ikaslea eta Juan Villar irakaslea dira protagonistak / 2-3

IKUSBERA

Udako Ikusbera aldizkaria

Aiurriko harpidedunek zenbaki berria buzoian jasoko dute!



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Oso sinetsita dago Juan Villar Egape Ikastolako irakaslea ikasle orok dituen gaitasunetan. Hala, orain hamarkada bete inguru hasi zuen bere Gaztelania eta Literatura irakasle-jarduna Egape Ikastolako DBH 3. eta 4. mailan. Irakasteko ohiko bidetik ihes egin du, ordea, era arrakastatsuan; hori dio, behintzat, orain gutxi jasotako ezusteko atseginak. Twitterren, izugarrizko sona lortu dute bere ikasle den Ane de Sosa urnietarrak eginiko apunteek: gaur gaurkoz, hiru milioi ikustaldi izan ditu txioak, 7.739 birtxio eta 58.056 atsegite. Biekin elkartu da Aiurri; ezin sinetsita dau-de oraindik.

Nola eskuratu dute horrelako oihartzuna Barroko garaia biltzen duten apunte batzuek? Nola atera zen proposamena?

Juan Villar: Barroko garaiko apunte batzuk ekarri zizkidan Anek, nik ikasgelan hala eskatuta. Berarekin bildu eta hamarreko lana zela esan nion, baina hutsetik beste batzuk egitea proposatu nion, eskuz. Zergatik? Edukiari nahiz estetikari dagokionez, bikaina zen lana, eta, orduan, gaitasuna zuela jabetuta, zerbait gehiago ikas zezala nahi nuen, behin kurrikuluma beteta. Hala prototipo batzuk egin genituen, azken emaitzera iritsi baino lehen.

Metafora bisualak arakatu genituen eta pertsonen proportzioak neurtu; dinamikoak izatea eskatu nion, bai eta ingurune batean kokatzeko ere. Horrez gain, Barroko garaiko erreferente bat jartzeko aipatu nion, eta "Las Meninas" txertatu du apunteetan. Sasoiko testuinguru geopolitikoa (goiko aldean) zein kulturala (azpiko aldean) erretratatu du, xehetasun handiz.

Nolakoa izan da, Ane, apunteak egiteko prozesua?

Ane de Sosa: Barrokoaren laburpen bisuala da: krisialdi bat eman zen eta ezkortasun handia ekarri zuen horrek. Bestalde, gerrek, uzta txarrek eta epidemiek hil-kortasun-tasa areagotu zuten nabarmenki. Bien bitartean, Espainian, monarkia absolutua zegoen ezarrita. Eta literaturan landutako gaien artean, indar nabarmena maitasunak, gai moralek nahiz sozialek izan zuten. Halaber, kulturenismoa eta kontzeptismoa bereizi nituen,

"Erakargarria eta eraginkorra behar du ikasketak"

ANE DE SOSA ETA JUAN VILLAR IKASLEA ETA IRAKASLEA

Egundoko arrakasta lortu dute Twitterren Ane de Sosa Egape Ikastolako ikaslearen apunteek. Juan Villar irakasleak bota zion erronka urnietarrari



Ane de Sosa eta Juan Villar, Gaztelania eta Literaturako ikasgelan. AIURRI

hainbat ezaugarri ipintzeaz gainera: bi artista izendatu ditut, Luis de Gongora (poeta) eta Francisco de Quevedo (idazlea).

Nabari da eman dizkiodan bi apunteen arteko aldea. Orri zuria ongi antolatzeke esan zigun Juanek, edukiak argitasunez bereizi ahal izateko. Lehenengo apunteen kasuan, egitura ez da hain argia. Aldiz, eman diodan azken lanean, txukunago ageri dira ideiak. Estetikari dagokionez, esaterako, kafea erabili dut, lurraren koloreak eskuratzeko, beste proiektu batean irtendako proposamen baten harira.

J.V.: Lanketa sakon baten erakusketa da lana. Pazientzia handia izan du Anek, izan ere, hilabete baino gehiago egon gara honetan, nahiz eta denbora guttia ez diogun lan horri eskaini.

A.S.: Gainera, horrelako proiektu bat egite hutsarekin, edukiak barneratu ditut; ez dut sekula ahaztuko. Finean, ikas-liburuekin astuna egiten da horrelako azalpenak ikastea.

J.V.: Erabilitako metodologia *visual thinking* da. Nolabait, irudi bitartez, pentsamendua garatzean datza, alegia, ideia konplexuak marrazki sinpleekin jorratu dituzte, *Feynman* teknikaren bidez: ulermen sakona ziurtatzen du ideia zailak errazak bihurtzeak. Twitterren, agian, zenbaitek ez dute ongi ulertu (eduki gutxi dagoelakoan da jendea). Ez dakite zein nolako lanketa dagoen horren atzean; zorrotasun handiz erabaki dira xehetasun guztiak, Borgoinako gurutzeta, edota "Armada garaiezina"-ri erreferentzia egiten dion itsas-ontzia, kasu.

Nolakoa izan da, Ane, zure lan baten Twitterren horrelako inpaktua izatea?

A.S.: Izugarrizkoa. Lehendik ere igota zeukan Juanek nire lanen bat edo beste Twitter plataformara, baina ez dute, sekula, horrelako dimentsiorik hartu. **Gustuko al duzu horrela ikastea?**

A.S.: Niretzat errazagoa da, ari-nago barneratzen dugu edukia eta ez da astuna egiten, oso erakargarria delako.

Juanen klaseak ez dira ohikoak. Gogoratzen al duzu berarekin izandako lehen eguna?

A.S.: Jakina! Joka bat egin genuen, asmakizunekin.

J.V.: Ikertzaile-talde bat ziren, eta logikako ariketa mordoxka egin behar zituzten, mailatik mailara igarota, txosten bat es-



Barroko garaiko laburpen bisuala egin du Ane de Sosa Egape Ikastolako ikasleak. JUAN VILLAR

kuratu arte: gamifikazio baten bidez, ikasturteko programazioa aurkeztu nien.

A.S.: Oso harrituta gelditu ginen guztiak. Izan ere, eduki, eduki ditugu Gaztelaniako irakasle onak, baina ikas-liburuei itsatsita egon gara beti. Hasiera batean, arraroa egin zitzaigun, ez baikaude ohituta. Ez genuela asko ikasiko uste genuen, hasieran, baina argi eta garbi gelditu da baietz.

Gainerako ikasgaietan, ez dugu horrela funtzionatzen, bakoitzak bere metodologia duelako. Egia da, nire ustez, zaila dela arlo guztietan modu honetara ikastea, baina Biologia-Geologia bezalako ikasgai batean, adibidez, eraginkorra izan daitekeela uste dut.

J.V.: Lehen bi hiruhilekotan, pentsamendu ludikoa sustatu dugu klasean. Horrek honakoa hau eragiten du: hainbat aldiz ahalegindu behar zara gauza bat egiteko, eta akatsa ez da zigortzen. Horren adibide dira prototipoak; makina bat egin dituzte, helburua lortu arte. Zortzitik gorako media du klaseak. Aneren lanaz gain, oso proiektu interesgarriak eman dizkidate gainerako ikasleek ere.

Era berean, Juan, beraiengandik ikasteko aukera ematen al dizu zure lan egiteko moduak?

J.V.: Noski baietz. Ni ez naiz gai Anek egin duena egiteko. Oso azkar ikasten du botatzen dizuna, eta super boterea da hori, gaur egun.

Kontaidazu, Ane, nolakoa da klase egun bat Juanekin?

A.S.: Ez da gainerako irakasgaiak bezala. Ez dugu irakasleak azalpenak ematera itxaron behar. Hasieratik parte-hartzaile aktiboak gara: talde bakoitzak bere proiektuari ekiten dio, nork bere erritmora, presiorik gabe. Ez da soilik irakaslearen azalpena entzutea, apunteak hartzea eta azterketarako ikastea. Guk klasean ikasi egiten dugu eta inork

"HORRELA, EZ DA ASTUNA EGITEN IKASKETA. ERAKARGARRIA DA"

ANE DE SOSA, IKASLEA

zailtasunik badu, laguntza eskaintzen diogu.

J.V.: Ikasgelara bizpahiru minutu berandu ailegatu izan naitzen ere, lanean topatu izan ditut beti. Lan-giroa dugu klasean eta oso deigarria da hori. Azterketa, esaterako, ez da betiko froga izaten, landutako edukiak ongi barneratu direla ikusteko ariketa da.

Lateral thinking delakoak pisua du zure irakasle-jardunean, ezta, Juan?

J.V.: Sormena lantzeko estrategiak erakusten dizkiet. *Steal like an artist* ideia ere asko erabiltzen dut: dibergentzia prozesu baten bidez, informazio kopuru handia arakatzear datza, eta, behin hori eginda, konbergentzia ematen da, hau da, aurkitutako eduki horretatik guztitik garrantzitsuena dena hautatzen, konbinatzen eta eraldatzen da. Hori xe da Anek egin duena azken horretan.

Horrenbeste arrakastaren aurrean, egon al da argitalpenaren harira desadostasunik, kritikarik?

J.V.: Bai, batez ere, hiru ildo nagusitan banatuko nituzke jasotakoak. Lehenik, eurozentrismoa zela esan zidaten. Bigarrenik, *negrolegendario*-a dela, hots, zati historikoak Espainiako historia beltza iruditzen duela idatzi zuten beste zenbaitek. Eta, azkenik, eduki falta nabarmendu dute, "gure garaian orrialde mordoak genuen ikasteko".

Ez dut ezer esan nik horren aurrean, jada, jendeak erantzun duelako. Espainiako momentu jakin bat irudikatu nahi genuen, eta horregatik girotzen da bertan mapa. Bestalde, *negrolegendario* delako ideari erantzunez, ez dut ezer esateko; azkenean, han eta hemen aurkitu dugun informaziora mugatu gara. Halaber, edukiari dagokionez, proiektu

zabala gauzatu dugu eta jendeak ez du ulertu hori, soilik, egin-dako lanketa guztiaren laburpen bisuala dela, orrialde bakarrean.

Talka handia egiten al du zure irakasteko moduak egun indarrean den ereduarekin?

J.V.: Orain bat hamar urte, etorri nintzenean, taldeka eta ordenagailuekin ipintzen nituen ikasleak, konpetentziak lantzen. Egun, eskola osoak egiten du lan horrela, baita Gipuzkoako askotariko ikastetxeek ere.

Gabezia handiak ditu indarrean dagoen hezkuntza-ereduak. Erakargarria eta eraginkorra behar du ikasketak.

Non jarriko zenuke, hortaz, begirada hutsune horiei aurre egiteko?

J.V.: Niretzat, motibazioetik hasten den prozesua da ikasketa. Motibazioak interesa sortzen du, eta interesak ezagutza. Presaka gabiltza hezkuntzan, ezagutzetara egiten dugulako salto, zuzenena. Aurreko bi pausoei jaramonik egin gabe, hirugarrena ezin da ongi garatu. Kurrikuluma murriztu beharko litzateke, eta benetan garrantzitsuek dena erabaki. Eguneratu egin behar gara eta estrategiak pentsatu, kasu honetan, gaur egungo (eta ez duela hogeitazurteko) 14-15 urteko nerabeei zuzenduta, motibazioa, interesa eta ezagutza sustatzeko. Ikastea zerbait serioa eta formala dela uste du jendeak. Eredu hori gaitzitu egin behar dugula uste dut: ez da ikaslerik gelditzen atzean, horrela, ez eta "txar"-tzat jotzen direnak ere.

A.S.: Askori ez zaie erraza egiten liburu baten aurrean ipini eta orrialdeak ikasten hastea. Ikasteko metodo ona da Gaztelania eta Literatura ikasgaien darabilguna. Nire iritziz, mairago erabili beharko litzateke.

Bizitzeko
GIPUZ KOA

Linea

Phil

Reyes

Pablo

Aydon eta Max

5 PERTSONA BIZIPEN

BIZI ITZAZU!



Herriar morderka bildu zen suaren bueltan. AIURRI

Sorginen agerraldia, aspaldiko partez

Euskal Herriko gaurik magikoena omen da San Juan bezpera. Txoko askotako plazetan piztu ohi da sua gau horretan, bai eta Urnietan ere, udari hasiera ezinhobea emateko asmoz

Erredakzioa URNIETA

Ohiturak berreskuratzeko bidean, itzuli da San Juan sua Urnietara. Udako solstizioak zapore berezia hartu ohi du herrian eta, makina bat herritar bildu ziren Plazido Muxika plaza ekainaren 23ko gauean, eskolako apunteak sutan erre eta udari ongi-etorria emateko. Behin plaza beteta, gaueko

22:15etan hasi zen egitaraua Akelarrea elkartearen ikuskizunarekin.

Iluntzean, eguraldi kaskarra egin arren, ateri egon zen hitzordu berezian eta aurreikusi bezala irten ziren jendaurrea sorginak, beren urteroko erakustaldia egiteko. Sua, lapikoa, dantza eta deabru gorrien zilipurdiak. Denetik izan zuen

ikuskizunak, bai eta akerraren presentzia ere. Gerturatu ziren lagunak epeldu zituen suak eta aspaldi ez bezalako kolore gorrixka hartu zuen plazak, udasasoa hasi denaren erakusle. Herria argiztatu ondoren, Txanbolin Txistulari Bandaren txanda iritsi zen, eta beren melodiek, urteko beste hamaika hitzordutan legez, gaua girotu zuten.

Udari, hasiera ezinhobea



Emanaldi ikusgarria egin zuten sorginek. AIURRI

Sorginen berragerpena Lapikoaren bueltan bildu ziren sorginak. Ikuskizuna plazaren itzulian hasi bazuten ere, erdigunean amaitu zuten, euskal dantzak bestelako mugimenduekin uztartuta Akerrari dei egiteko.



Herriko gaztekoek ere parte hartu zuten hitzorduan. AIURRI

Dantza eta musika ikuskizuna Pandemiaren aurretik zuen giro arrakastatsua berreskuratu du hitzorduak, izan ere, jende asko hurreratu zen gau horretan Plazido Muxika plaza udaren hasieraz goatzera



Oso txalotua izan zen emanaldia. AIURRI

San Juan bezperako ospakizuna Deabru gorrien zilipurdiek ikusmira handia sortu zuen urnietarren artean. Hara eta hona aritu ziren korrika, sorginen artean, eta ikuskizun ederra eman zuten beren txiribueltek.

EURIPEAN ERE HUTSIK EGIN GABE




San Juan jaiak Aiurri.eus webgunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala



Kronikak, iritzia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Ekaitza lehertu zen iluntzean, baina hala eta guztiz ere gaueko 22:30etan San Juan sua piztu zuten Goikoplazan. AIURRI

Joan dira herriko jaiak

Euriak baldintzaturiko jaiak izan dira aurtengoak. Neurri batean bai, baina egitaraua ia bere osotasunean gauzatu ahal izan da. 2020ko eta 2021eko ezohiko urteen ostean, jaia normaltasunez bizitzeko gogo berezia antzematen zen



Maizorri txalaparta taldeko kideen eskutik iritsi zen pregoia. Argazkian, haietako hainbat kide: Jon Urtasun, Maite Sagaseta, Eneko San Jose, Miren Lopez de Munain eta Juan Godoy. Kide gehiago elkartu ziren udaletxean. AIURRI

Herriko musikariek girotutako jaien hasiera

Musika doinuekin hasiera eman zioten jaiari, ostiral arratsaldean. Musika osagai garrantzitsua da jaietan



Leire Esnaola trikitilaria eta haren ikasleak, Goikoplazan. AIURRI



Udal Musika Eskolako akordeoilariak, Ane Urbizu irakaslearekin. AIURRI



Gora Kaletxiki Banda, Goikoplazara iristean. AIURRI



Aurtengo jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. AIURRI



Udal Musika Eskolako abesbatza Katrin Iturralde zuzendariarekin eta Salbe Gorenean parte hartu zuen Joxe Mari Oiartzabalekin batera. AIURRI



Agustin Leitza elkarteko danborrada, Kontzejupean. AIURRI



Udal ordezkariek eta herritar talde batek udaletxeko balkoitik jarraitu zuten ekitaldia. AIURRI

Udal Korporazioaren Soka-dantza

Euripean amaitu zen aurtengo soka-dantza. Eta ondoren iritsi zen ekaitza. Euri jasa iritsi aurretik tradizioa biziberritu ahal izan zuen Udal Korporazioak, agintaldi honetako azkena izanik. Datorren urtean, Udal korporazio berriak parte hartuko baitu jaien hasierako soka-dantzan.



AIURRI



AIURRI



Izaskun Beraza eta Ander Setien axerien soka-dantzan. AIURRI

Poza ekarri zuten axeriek

Goizean goizetik, herriko kaleak alaitzen aritu ziren axeriak. Talde polita osatu zuten eta eguerdian emanaldi nagusia eskaini zuten Goikoplazan. Arratsaldean, gainerako festazaleen artean murgildu ziren Distopia elektrotxarangaren erritmoan dantzan

Erredakzioa ANDOAIN

Hogar Extremeño elkarteko ki-deek eskuzabaltasun handia erakutsi zuten, axeri guztientzat bazkaria prestatu baitzuten. Haien lurretan tradiziozkoa den Kaldereta prestatu zuten.

Andoaingo elkartearen sukaldari lanetan aritu ziren Pedro Mateo, Garikoitz Hurtado, Alejandro Gibello, Guillen Vicente eta Rafa Alcon. Izaskun Berazak, esker onez, Axeri-dantzarien zapi bana oparitu zien.

Pozarren egon daitezke Axeri-Dantzako kideak, dozenaka lagun elkartzea lortu zutelako eta belaunaldi berriak hurbiltzen ari direlako. Parte hartu zuen gazteenaren eta helduenaren artean 40 urteko aldea zegoen.



Axerien dantza emanaldia ikusgarria izaten da. 'Orratzakoa' izeneko dantza-jokoan guztien azpitik pasa behar du batek. AIURRI

Artisautza azoka, Goikoplazan

San Juan eguneko goiza argitsua izan zen, eta Goikoplazako azokan murgiltzeko aukera izan zen.



Taloak, eskulanak, tailerrak... Aukera zabala izan zen San Juan egunean. AIURRI



Buztingintzan trebatzeko aukera izan zen artisautza azokan. AIURRI



Eskulanak egiteko aukera izan zuten haurrek, Goikoplazan. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



AIURRI

Udal Musika Eskolako Banda

Bandan eskarmentua hartzen ari diren musikari gazteak nabarmendu ziren bakarkako emanaldietan. Horietako bat Aizpea Oria klarinete-jotzailea izan zen. "Flor de Lis" polkan bakarlari modura aritu zen. Bestea Izaro Aginaga saxofoi-jotzailea izan zen. "Yackety Sax" kantu

ezaguna eskaini zuen. Bandako kide izandako eta iazko abuztuan zen du zen *Fitero* musikaria gogoan hartu zuen, "Bella Ciao" kantua joz. Argazkian, Silvia Arevalo Karrikako kantariarekin batera. Uda beteko eguerdian. Eguzkiak gogotik jo zuen Goikoplazan, ordu horretan.

Andoaingo auzoak

Ametz Arzallus irakasle lanetan ipini eta Maialen Lujanbiori Andoaingo auzoen izenak esateko galdera luzatu zion. Tinta alperrik gastatu aurretik, Andoain esanda dena esana dagoela erantzun zion Arzallusi. Egañari luzatu zion, segidan, galdera, eta honek Sorabilla, San Esteban, Buruntza eta Kaletxiki aipatu zituen. Bertsoaldi hori eta beste hainbat bideoz ikusgai daude webgunean.



Distopiaren artalde zabala

Aiztondo aldeko musikariak aurki daitezke Distopia elektrotzarangako partaideen artean. Hiru ordu luzez herriko kaleank alaitu zituzten, San Juan egunean. Giro ederra jartzen asmatu zuten, eta pilatu dituzten jarraitzaileak ugari direla ikusita, une gozoa bizi dutela ondoriozta daiteke. Emanaldiz beteriko uda dute aurretik.



AIURRI



Goikoplaza musikazalez bete zen San Juan egunean, Gozategiren emanaldian. AIURRI

Kontzertuak eta zezen-suzkoa, San Juan gaueko ikuskizunak

Gau giro ederrean, aire librean zuzeneko emanaldiez gozatzeko aukera izan zen



Doctor Deseo taldeko Francis kantaria, Nafarroa plazako taula gainean. AIURRI



Zezen suzkoak saio bana eskaini zuen ekainaren 24an eta 25ean. AIURRI



Amasa-Villabona, Gasteiz, Beasain, Elgoibar eta Andoaingo konpainiak elkartu ziren Andoainaren ekainaren 25ean. **AIURRI**

Bilkura jendetsuak

Euriak goitik behera aldatu zuen Erraldoi eta Buruhandien topaketaren egitaraua. Hala ere, Ondarretan eskaini zuten saioan ikusle ugari batu zituzten. Txuleta jatean, bestalde, berrehun lagun elkartu ziren La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastoki estalian



Lan eta lan aritu ziren auzoetako jai batzordeetako hainbat kide; argazkirako une bat hartu zuten kupelaren ondoan. **AIURRI**



Puro Relajok ikusleak kantuan jarri zituen, behin eta berriro. **AIURRI**



Nora Mendizabalek etxekoan aurrean jantzi zuen Berriako txapela. **AIURRI**



Txuleta-jatean berrehun bat lagun elkartu ziren. **AIURRI**



Andoaindarra elkarteko danborrada umoretsu abiatu zen elkartetik. **AIURRI**



Zumeatarra kirol elkarteak antolatu zuen bikotekako kros mistoaren amaierako argazkia. AIURRI



Aterki eta guzti hurbildu ziren herritarrek artifiziozko suak ikustera. AIURRI

Jaietako igandea, ekitaldiz betea

Lasterka eginez abiatu zen igandeko egitaraua, eta artifiziozko suekin amaitu. Euri jasa dela eta, Tremenda Jauriaren emanaldia bertan behera geratu zen. Olagain txistulari bandak emanaldi bererezia eskaini zuen eguerdian, gonbidatu bereziak eta guzti



Ixiar Beraza kantaria, Esti Mujika musikaria eta Ainhoa Aiertza aurkezlea Olagain txistulari elkarteko kideekin batera. AIURRI



Mikel Morenoren emanaldia euripean igaro zen. AIURRI



Udal Musika Eskolako ikasleak eta Azelain ballet elkarteko kideak, elkarrekin. AIURRI



Ikusgarria da jaiei amaiera emateko piroteknia ikuskizuna. Eta baita parte hartzailea ere. AIURRI

Azken traka, astelehenean

Cul de Sac Kataluniako konpainiaren "Ragnaroc8" ikuskizunarekin amaiera eman zitzaion aurtengo San Juan jaiei. Ehunka lagun batu ziren Goikoplazan. Bost egunetan antolatu diren dozenaka ekitaldien artean, azkena izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Garai batean, su-artifizialekin amaitu eta pirotekniatzko ikuskizuna eskaintzea erabaki zen. Geroztik horrela amaitu dira jaia. Aurten, ordea, biak antolatu dira: su-artifizialak eta pirotekniatzko ikuskizuna. Astelehen gauekoa parte hartzaile

lea izan zen, kataluniarren ikuskizunarekin bat egiteko aukera zegoelako. Gazte ugari murgildu zen pirotekniatzko ariketa ezberdinen azpian. Juanita Alkain plazatxotik abiatu ziren, eta lehen geldialdia Bastero plazan egin zuten. Aurretik eta atzetik ikusle ugari zebilen

kalean. Azken emanaldia Udaletxearen parean eskaini zuten. Ehunka ikusle elkartu zen, ikustea besterik ez dago Goikoplazan pilatu zen jendetza. Urigain aldetik ere dozenaka ziren ikuskizuna jarraitzen aritu ziren herrikideak. Txalo zaparrada jaso zuten artistek.



Pandemia dela eta 80, 81 eta 82 urtekoak batera omendu zituzten jaietan. Denak bazkari eder batean bildu ziren gero. AIURRI



Aita Larramendi ikastolako ikasleak, astelehen arratsaldeko haur danborradan. AIURRI

Haur danborrada, Andoaingo ikasle gazteen bilgunea

Astelehen arratsaldean kalejiran abiatu ziren, Zumea plazatik Goikoplazara

Erredakzioa ANDOAIN

Ondarreta, La Salle Berrozpe eta Aita Larramendi ikastetxeetako ikasleek haur danborradan parte hartu zuen. Zumea plazatik abiatu ziren, eta Goikoplaza bitarte hainbat pieza jo zituzten. Ekitaldi jendetsua da, parte hartzaileen inguruan guraso eta

senide ugari batzen delako. Haur danborradan agintariak eta lanbideak irudikatzen dituzten ikasleei harrera egin zieten Udal batzarraldi aretoan. Goikoplazako emanaldia amaitzean, Bakartxo eta Joseba eta Klaap dantza eskolak ere jendetzaren aurrean aritu ziren.



Ondarreta ikastetxeako ikasleak, Kaleberrian. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxeak Kanpezuko udalekua gogoan hartu zuen. AIURRI



Udal ordezkariak eta Foru Aldundiko kideak elkarrekin, San Juan plazan. AIURRI

"Hariak" bakardadeen aurreko estrategiaren aurkezpena

Xedea ibilbide-orri bat ezartzea da adinekoen artean joera den bakardadearen fenomenoari aurre egiteko

Erredakzioa URNIETA

Adineko bakardadearen auziari heldu diote Urnietan: astearte arratsaldean, Saroben aurkeztu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberrik Gipuzkoako bakardadeen aurreko estrategia, Hariak. Orain bi urte, erakunde publikoekin eta herritarrekin lankidetzan egindako parte-hartze prozesuaren emaitza da hori; 51 pertsonako talde eragile batek gidatuta, guztira 400 kidek baino gehiagok hartu dute parte.

Adina eta bakardadea elkar lotuta doaz

Gipuzkoako bakardadearen aurrean "jarduteko esparru estrategiko bat" sortzeko asmoz ekin zioten egitasmoari, izan ere, Rakel San Sebastian Adinberriko zuzendariaren esanetan, "lehen mailako erronka" da afera, ikerketa bateko datuetan oinarrituta: "55 urtetik gorako

Gipuzkoako biztanleriaren %30 inguru bakarrik sentitzen da, nahiz eta %5,5ak soilik onartzen duten modu irekian".

Bakardadearen hiru dimentsiotan esku hartu ahal izateko eratu da estrategia, soziala, emozionala eta existentziala, eta bakardade egoerei, bakardadearen aurreko kalteberatasun egoerei eta harreman bazterketako egoerei aurre egiteko jarduerak aurreikusten ditu. 12 esku-hartze maila biltzen ditu proiektuak, zuzendariak azaldu bezala: prebentzio unibertsala, espazio fisikoen eraldaketen, sentsibilizazioaren eta aisialdiko zein boluntariatutzako jardueren bidez; prebentzio selektiboa, bizikidetzaren dinamikak sortuz, auzo-komunitateak dinamizatuz eta arrakala digitala murriztuz; eta prebentzio egokitua, etxeko laguntzei eta konpainia-jarduerari esker.



Goni eta Bengoetxea elkarrekin egon dira berriki, Amasa-Villabonan. AIURRI

Bertso-pilota saioa Urnietan, ostiral honetan

Mikel Goñi eta Imanol Odriozola urnietarra Mikel Aranguren eta Iker Urmenetaren aurka ariko dira

Erredakzioa URNIETA

Bertso-pilota saioa antolatu dute zenbait urnietarrek uztailearen lehenean. Hala, bi diziplina horien arteko erakustaldia izango da iluntzeko 19:00tan Urnietako Udal Pilotalekuan: pelota-partidua jokatu bitartean, bertsolariak egongo dira kantuan. Mikel Goñi eta Imanol Odriozola urnietarra Mikel Aranguren eta Iker Urmenetaren aurka ariko dira. Bien bitartean, Eli Pagola eta Andoni Mujika Anatz- bertsolariak giro-tuko dute ostiral iluntzea.

Zozketa

Sarrerak jada salgai daude Oia-numen eta Frontoi tabernan. Horrez gain sariak zozkatuko dira:

1. saria: Bi afari Oianume jate-txean.
2. saria: Gourmet produktuen otarra.
3. saria: Oliba olio kutxa.



Anatz eta Eli Pagola bertsolariak. AIURRI

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Manex Mendizabal
Uztailaren 7an 23 urte beteko ditu. Zorte on etorkizuneko erronketan. Zorionak amona Miren eta aitona Estebanen partez!



ANDOAIN
Eñaut Agirre
Enaut Agirrek, gure mutiko handiak, 13 urte erraldi beteko ditu. Zorionak eta beti bezain jator jarraitu.



ANDOAIN
Ongietorri mundura Haize!
Besarkada bero-bero bat eta marrubizko muxutxoak: amona, attona, birramona, birrattona, izebamonak, osaba-attonak, Kai eta Beltxiaren partez.



Urte askotarako

www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean
Whatsapp bidez:
619 16 35 37
diseinua@aiurri.eus
Arantzibia 4-5, behea Andoain
Telefonoa:
943 300 732

ANDOAIN
Zorionak Ur!
Uztailaren 10ean sei urte beteko ditu mutikoak. Muxuak! Xune eta etxekoak.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietan: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.





UAE Emirates taldeko Tadej Pogacar da hautagai nagusia. BETTINI

Demokrazia pixka bat balego

TXIRRINDULARITZA Uztailera lehen egunean hasiko da Frantziako Tourra Danimarkan; Tadej Pogacar da faborito nagusia, baina txirrindularitzako katedra lasterketa irekiago, ikusgarriagoaren esperantza da, Giroarekin erdizka geratu baitzen

Andoni Urbistondo URNIETA

Munduko demokrazien sehaska omen Frantzia, baina, kirol kon-tuetan demokraziatik apal samar dabil Grande Boucle ezaguna, Frantziako Tourra. Demokrazia baino, diktadura dirudi, Tadej Pogacar fenomenoak nahieran dabilelako. Ikuskizunari ikus-kizuna lotzen aritu da esloveniar izarra azken bi urteetan, eta inor ez da ausartzen harena ez den beste izenik ematen Tourra irabazteko hautagai zerrendan. Are gehiago, Pogacar-ek ez irabaztea utopia hutsa omen.

Horien azalpenak balekoak dira. Nagusitasun itzela erakutsi du Pogacarrek azken bi Tourre-tan. Aurkaririk ez mendian gora, ezta erlojupekoan ere. Esperan-tzaren zirriketua ikusi nahi dute askok. Iaz, Mont-Ventoux men-datetzarrean gora Jonas Vingegaard-ek Pogacarri gorriak iku-

sarazi zizkiola gogoratzen dute zenbaitek, esloveniarra Jumbo taldekoaren gorpilera itsatsi ezinik geratu baitzen. Ordurako, baina, bost minutuko zuloak urruntzen zituen bata bestearen-gandik, eta, maldan behera, Pogacarrek hanka batekin harra-patu zuen bueltan Vingegaard. Parisera iritsi aurreko azken erlojupekoan ere Pogacar-ek be-ragan ohikoa den distirarik ez zuela egin esaten da, baina kasu horretan ere, Tourra irabazita zeukan UAE taldekoak. Huts egingo du, agian, esloveniarrek, baina ezerk ez du hipotesi hori

**NAGUSITASUN
ITZELA ERAKUTSI DU
UAE TALDEKO
POGACARREK AZKEN
BI TOURRETAN**

sustatzen. Bere herriko Tourrean hanka batekin nagusitu da Pogacar, bi aste atzera, edonor aho bete hortz uzteko moduko nagusitasuna erakusteko.

Vingegaard vs. Pogacar

Vingegaard bera da Pogacar tronutik jaisteko hautagai nagusia. Estutu duen bakarria delako, Pogacar-en txakalaldia ustela izan edo ez. Dauphine Itzulian bikain ibili da, Roglic taldekidea baino indartsuago maldan gora. Jumbo taldeak zortzikote bikaina eramango du Kopenhagera, eta hortik has daitezke Tourra irabazten. Hautagai pokerra, egon, badago, baina asmatzen duenak aberats. Honatz aintzat hartzeko moduko izen batzuk: Roglic, Vlasov, Geraint Thomas eta Daniel Felipe Martinez, Caruso-Haig Bahrain taldean...

Mendia bai, baina hankamotz

Giroak ikuskizun apala eskaini zuen, oso lotuta joan zen lasterketa, eta Tourrak antzekoa izateko arriskua dauka. Batez ere Pogacar eta UAE taldeen domeinua oso garaiz hasten bada. Ez luke hala izan behar, edota bestela esanda, horrela ez izateko osagaiak ditu ibilbideak. Batez ere, bat: datorren asteazkenean, harbide gainean egingo den etapa gaiztoa. Danimarkan hasiko da, ostiralek, 13 kilometroko erlojupeko lauarekin, eta lehen bi etapak ere esprintean erabakitzeke modukoak dira.

Laugarrean, Dunquerque eta Calais artean puncheur edo klasiko zaleak sartuko dira joan, etapa bihurriarekin, eta asteazkenean harbidea. 20 kilometro denera, 11 zatitan banatuta, eta Jumbo, Bahrain, Ineos eta Bora taldeak UAE eta Pogacar estutzeke gogo handiarekin. Eguraldiak zeresana eduki dezake, eta lasterketa gogorra eta hautsia izatea espero da. Pogacar atzeratu dezakeen etapa bakarria da askoren ustez, eta erabakigarria izan bide da.

Harbideen ondoren mendateek hartuko dute lekukoa. Itzuliko lehen erdiaren atarian bi bukaera mendateetan, lehen mailako Le Planche de Belles Filles eta Pas de Morgins-en, ia etapa osoa Suitzako lurretan egin osten. Bigarren asteko lehen erdia Alpeetan izango da, eta, gauzak normal, Tourra bertan erabakiko da. Asteartean Megeve-eko aerodromoan bukaera, etapa erraza. Asteazkenean Tourreko gogorrera, Galibier eta Granon igoko direlako, Galibier Telegraphe-etik. 2.500 metroko bi mendate tente dira, eta kilometro asko gorantz. Etapa, dena den, laburra da, hurrengo eguneko bezala. Joe-ra hori hartu dute Tourrak eta Vueltak, mendiko etapa gogorrenak kilometrotan laburtzea, zoritxarrez. Ostegunekoak Galibier igoko du atzera, baina Lautaret aldetik, autopista erraz bat, azken bederatzi kilometroetan sartu arte. Ondoren Croix de Fer eta Alpe d'Huez

**VINGEGAARD DA
POGACAR
ESTUTU DUEN
TXIRRINDULARI
BAKARRA**

Aiurri eta ETB1n

Kopenhagetik abiatuko da aurten Frantziako Tourra, eta 24 egunez etapaz etapa ibiliko da Parisera iritsi arte. Jarraipen berezia egingo diote EITB Median uztailaren 1etik 24ra. Ohi bezala, Andoni Urbistondok etapa bakoitzaren kronika argitaratuko du Aiurri.eus webgunean. Era berean, Tokikom toki hedabideen federazioko hainbat webguneetan argitaratuko da.

mitikoak. Bi etapa horiek ezin aproposagoak dira Pogacarrek dena hausteko. Edo beste taldeek urrunetik erasotzeko, batek daki.

Alpeetatik Pirinioetarainoko trantsizioa Mende-ko aerodromo ohiko etaparekin egingo da, larunbatez. Pirinioei gatza falta zaie. Foix-en bukatuko den etapa zozoa da, bukaeratik gertu Mur de Peguere pikoa badu ere. Asteazkenekoak ere lehen mailako hiru mendate ditu, eta bigarren mailako beste bat. Menuan Aspin, Hourquette d'An-cizan, Val-Louron-Azet eta Peyragudes daude. Mendate guztiak 10 kilometroko luzeraren muga. Lurdes eta Hautacam arteko etapak bakarrik egin dezake Alpeetako bi etapatzarrek adina min, baina mendiko azkena ere oso laburra da: 143 kilometro. Hori bai, ziklistak muga-muga joango dira dagoeneko.

Hiru mendate handi daude bidean. Aubisque, Laruns-etik, bere alde gogorrera: 16.4 kilometro, %7,1eko pendiza batez beste. Ezezaguna da Ferrieres, baina oso gaiztoa, errepide estuko tranpa (10,3 km., %8,3ko malda). Tourreko azken mendate serioa, Hautacam. Aldapa zaila da Hautacam, irregularra, baina justu doanari miseri guztiak ateratzeko modukoa. Zenbaki hotzak: Ia 14 kilometro luze eta %7,8ko batez besteko malda. Pariseraino 40 kilometroko erlojupekoa bakarrik geratuko da Rocamadour herrian. Ordurako, baina, erlojuak sententzia emana edukiko du.

POSTONTZIA

MARKEL IRIZAR TREK-SEGAFREDO TXIRRINDULARI TALDEKO TALENTU BILATZAILEA ETA ENBAXADOREA

‘Le grand depart’

Akaso guztiz erratuta ibiliko naiz, baina beti pentsatu izan dut, ume edo nerabe moduan bizi izandako oroitzapen eta esperientziek heldu gisa izango garena, edo gaur egun garena baldintzatzen dutela, hein handi batean.

Nire kasuan, aita txirrindulari zale izan, eta gaztetatik bizi izandako txirrindu giroak, uztailak esanahi berezia izatea ekarri du: Frantziako Tourra. Eta Frantziako Tourra diodanean, Tourra esan nahi dut bere konnotazio guztiekin: auto karabana, furgoneta eta kanping dendak, ikurriña, marea laranja, patata-tortilla, beroa, bizikletak, jaia...

Ez dakit kirolean errege den futbola oporretan delako eta komunikabideek beste kirolei arreta gehiago jartzen dietelako den. Akaso daukan tradizioagatik da, edota egutegian daukan kokapenagatik, baina inork gutxi uka dezake Frantziako Tourra dela egutegiko lasterketa garrantzitsuen.

Lasterketa garrantzitsuen izaki, txirrindulari moduan beti izan nuen Tourra

"UZTAILAK ESANAHI BEREZIA IZATEA EKARRI DU NIRE KASUAN: FRANTZIAKO TOURRA"



Markel Irizar, 2019an. TREK SEGAFREDO

probatzeko gogo. Bere handitasuna ikusi nahi nuen, Pirinioetako zaleen berotasuna nolakoa zen esperimentatu, eta Champs Elysees -eko birak bukatu osteko txirrindulari karneta jaso...

Hala ere, eta Giro zalea izanik, behin Tourra probatu eta gero, ez dut azken urteetan Tourrera joateko grina berezirik izan, 2023ko Tourra zein berezia izango den konturatu naizen arte. Aurten Tourra Kopenhagen hasiko da, Danimarkako hiriburuan, eta Trek Segafredo gure taldeko zuzendaria Kim Andersen da, danimarkarra! 60 urte pasa ditu, eta batek daki zenbat Tour osatu dituen txirrindulari moduan, beste

mordoxka bat zuzendari moduan. Aurtengoa nolako ilusioarekin prestatu eta bizitzen ari den ikusteak ohartarazi dit 2023ko Bilboko Grand Depart-a edo irteera handia ze berezia izango den niretzat.

Euskal Herrian 2023ko Tourra hasi arte 365 egun lo geratuko gara, baina, halere, etxe aurretik taldeko kotxean pasatzeak zer suposatuko didan pentsatzeak irribarre txikia ateratzen dit, nahitaez. Egun hori iritsi bitarte, italiarrekin ikasitako esaldi bat ekarri nahi nuke idatzi honetara: ‘Una alla Volta’. Alegia, banan bana joaten. Horregatik goza dezagun 2022ko Tourraz. Nire desiorik onenak Tourrean egongo diren zale eta kideei, batez ere nire lagun Kim-i. Aurtengoa majo goza dezagun, eta prest gaitezen munduari euskaldunak nortzuk garen erakusteko, Euskal Herria txirrindularitzaren begietatik zer den erakusteko.

Tik, tak, tik, tak... 365 egun ‘gure Grand Depart’-erako!!!

"PRESTATU GAITEZEN 2023RAKO MUNDUARI EUSKALDUNAK NORTZUK GAREN ERAKUSTEKO"



AIURRI

Gaztetxeko pilota txapelketa

PILOTA Bigarren aukerako partidak jokatura, ostiralean ekingo zaie hurrengo partidei. Txapelketa geroz eta estuago dago, maila altuko pilotari gazteez bete. Ikusleak bertaratzin dira, hondartzako aulki eta guzti. Txapelketa berezia izan ohi da, herrikideen arteko lehiagatik.



AIURRI

Jaietako zesta txapelketa

PILOTA San Juanetako XLVI. txapelketaren barnean, aurreko larunbatean zesta puntako jaialdia jokatu zen Arrate pilotalekuan. Ikuskizun polita eta giro bikaina egon zen. Jende asko bertaratu zen kirol bizi eta ikusgarria begizatzeko.

LIGAXKA

UZTAILAK 4 ASTELEHENA | 18:00ETATIK AURRERA

GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

ALDABE · BARRENETXEA IV

VS

EZKURRA II · JUANENEA

URRIZA · LABAKA

VS

ANSA II · AZPIROZ

"Jendea barrez jartzeak ez dauka preziorik"

JUANMA GONZALEZ BAKARRIZKETARIA

Bakarrizketarien gaua izango da ostirala Kaletxikin. Quique Matilla eta David Cepo profesionalekin batera, Juanma Gonzalez andoaindarra ariko da "Barre Gauan"

Xabier Lasa ANDOAIN

Ez al zaizkizu barruak pittin bat mugitzen ari, estrainaldia dela eta?

Batere ez! Gora urduritasuna! Besterik ezin dut oihukatu. Gau perfektua izango da, osagai guztiek: gogokoa dudana egitea, eta non, eta kasik bertakoa sentitzen naizen auzoan, senideez, lagunez eta ezagunez osatutako publikoaren aurrean...

Kaletxiki leporaino jarriko dela ez eduki zalantzarik! Izan ere, nire inguruko jende horrez gain, Quique Matillak eta David Cepok ere publiko zabala era-karriko dute, maila handi-handiko bakarrizketariak baitira. **Jendaurrean azaltzeak edonori errespetua eragiten dion gauza da.** Bai, baina ondo ohituta nago lehendik ere, saltsero peto-petoea naiz. Nire inguruko jendeak badaki zenbat dudana gogoko edozein unetan show txikiak inprobisatzea, txorakeriak esan edo egitea, txisteak kontatzea, jai giroa piztea... Fazeta komikoa bat doa nire nortasunarekin.

Egia esan, kalea zapaltzea ika-ragarri maite dut, eta ibilia naiz perkusioaren munduan Zozongorekin, kale-antzerkia ere egin izan dut nire kabuz... Herrian, denetik egitera ausartzen naiz, danborrada dela, Axeri Dantza edo Puskia Biltzea direla... Egin kontu, ekitaldietan esateri gisa ere hasita nago pittin bat. Txiripa hutsa izan zen azken kontu hori, izan ere, aspaldi, Tarragonan oporretan nintzela, mendi lasterketa batean, mikrofonoa hartzeko eskatu zidaten gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz aurkez nezan proba; bada, harrizkero, urtero tokatzen zait *speaker* lana egitea. Are gehiago, iaz proposatu zidaten Bide Berdeen lasterketen sarean, Leitzarango proba aurkez nezan. Ni prest, noski, baina pandemia etorri zen agudo!

Gauza bat argi daukat: mikrofonoa hartu, eta tresna horrekin



Barre egin araztea du gogoko. AIURRI

"ONDO OHITUTA NAGO LEHENDIK ERE JENDAUUREKORA, SALTSERO PETO-PETOA NAIZ"

bakarriz jendea pozik jartzea, horrek ez dauka preziorik!

Baina bakarrizketaren munduan murgiltzeko teknika batzuk menderatu beharko dira, ala?

Jakina! Alde horretatik, bolada baterako Madrilerara joan eta, bertan Yllana antzerki konpainiarekin keinuzko umorea landu nuen, eta baita, Agustin Jimenez bakarrizketariarekin ikastaroa egin ere.

Madrileko egonaldia ondo probestu nuen; izan ere, Movistarren *The late-late show* formatuko saioetan muturra sartu nuen tarteka; esate baterako, *La Resistencia* programan zenbait saioetan (Estopa taldea, saskibaloiko jokalaririk bat... gonbidatuak izanik) publikotik irteten, eta umorezko bakarrizketatik txikiak egitea egokitu zitzaidan. Lotsa galduta daukat aspalditxo!

"El del Valle" da zure izen artistikoa.

Bai, oraindik orain, lagun mina joan zait betirako, eta hari omenaldi txiki gisa ere jarri diot nire buruari izen hori. Adiskide horrek nongoa nintzen galdetzen zidanean, nik "el del valle del Leizaran" erantzuten nion. Hortik, izen artistikoa.

Zer eskainiko duzu Kaletxikin?

Hogeitabat minututan, istorio bat kontatuko dut. Egunerokoan, edonori gerta dakizkiokeen gertaera txikiekin oinarritu dut gidoia. Autoan, lanean nahiz ohean erdi-lo nagoenean irudimena pizten zait, eta orduantxe irtendako ideiak paperan idazten ditut edo mugikorrean grabatzen. Asko ezin dut aurreratu, baina funtsean, baserritik kalera jaitsi den gazte baten ibilerak kontatuko ditut. Tarteka, keinu ugari egingo diet Andoaingo herriari, andoaindarri, Kaletxiki auzoari, kaletxikitarrei, Andoainen bizi den kultur aniztasunari... **Gaztelaniaz egingo duzu bakarrizketak. Etorkizunean euskaraz ere egitea pentsatu al duzu?**

Ostiraleko kontakizunean euskarazko esaldiek noizean behin hartzen dute bere tarte, baina egia da gaztelaniaren aldeko hautua egin dudala bakarrizketari gisa, modu naturalagoan moldatzen naizelako. Nahi nuke euskaraz egin, eta saiatuko naiz ziurrenik etorkizunean. Baina, oraingoz, iruditzen zait grazia falta zaidala euskaraz aritzeko eta publikoa barrez jartzeko.

la kaletxikitarra sentitzen zarela aitortu duzu.

Eta halaxe da, nahiz eta Goikoplaza aldean bizi. Harrigarria da auzo txiki horretan zer nolako festak antolatzen dituzten! Egun osoan daukazu ekitaldiren bat! Beti gustatu izan zait bertan ekitaldiren batean edo bestean parte hartzea, antolatzaileei edozertan laguntzea... Jakina, parranda mundialak egitea ere, derrigorrezko lana izaten da!

AURTENGO JAI EGITARAUA

UZTAILAK 1

OSTIRALA

19:00 Kandido eta bere Txikitxuei ongietorria. Goikoplazatik jaitsiera, Ikurriña elkartean ipini eta zapi berde-beltza kalean jarri zaiela hasiera emango diote.

20:00 Kantuz Kaletxiki Kantuan.

21:00 Oilasko-afaria auzoko plazan krisiaren aurkako prezioekin.

22:00 Barre gaua: Juanma El Del Valle, David Cep, Quique Matilla.

23:00 Mus Txapelketa Azkarra Ontza elkartean.

24:00-01:30 Synergy zuzenean.

UZTAILAK 2

LARUNBATA

10:30 Kaletxikiko XV. Eskupilota Topaketa Goikoplazan. Topaketa amaitzeko, Denok Txokotara!!

12:00 Sagardo txapelketa. Hamabi sagardogileen partaidetzarekin. Haur parkea. Ludoteka eremua puzgarriekin eta jolasekin triziklo elektrikoan pista eta musika.

16:00 Euskaraldiaren Txokoa.

17:30 Haur Parkea.

18:30 Kaletxikiko III. Haur danborrada.

19:00 Kaletxikiko XXXV. Danborrada nagusia.

19:30 Ontza elkartean afaria.

23:30-01:30 Tangoak, pasodobleak eta rantxerak NemuxDJen eskutik.

01:00 Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.

01:30-03:00 NemuxDJak.



Soka Dantza Kaletxikin. AIURRI

UZTAILAK 3

IGANDEA

10:00 Diana.

10:00 XVII. Karmelo Lasarte galeper tiraketa Pagamendin.

11:00 Meza Berrozpeko kaperan. Auzoko hildako eta bazkideen alde.

12:00 Soka Dantza Urki Dantza Taldearekin eta dantzan parte nahi duten bizilagun guztiekin. Pintxoak eta ardo txikitoak eskainiko dituzte auzoan.

13:00 Gora Kaletxiki Txarangaren emanaldia.

14:30 XXX. Kaletxikitarren bazkari herrikoia.

17:00 Gora Kaletxiki Txaranga.

17:30 Herritxiki Festa, gazte eta umeentzat Gorriti showaren eskutik: Poniekien paseoak eta sokamuturra txikientzat.

19:00 Sardin jatea Alaiaki taldeak girotuta. Dantzaldian zehar, Kandido eta Txikitxuek zapi berde-beltza gordeko dute, eta azkeneko suziriarekin emango zaie amaiera aurtengo jaiak.

Oharra: San Pedro egunean bertso saioa antolatu zuten.